

Gure ibilbidea Pagomakurren hasten da (900 m), berau, Gorbeiaiko Parke Naturaleko gune garrantzitsuenetariko dugu.



Ingurune berezi hau hainbat ibilbideren abiapuntua da, Gorbeiaiko gurutzera igotzeko erabiliena den ibilbidea barne.

Toki honetan hainbat aparkaleku, aterpe-ostatu bat, baseliza txiki bat eta bi atsedenleku daude. Inguruan sakabanaturik hainbat aterpe pribatu ikus ditzakegu, batez ere, gure ibilbidearen lehenengo zatian.



Ibilbidea Pagomakurreko estatutik hurbil hasten da (100m ekialderantz). Erreferentzi gisa "Galazota txakurrak aske ustea" adierazten duen kartela daukagu; adierazpen hau derrigorrez bete beharko da, txakurrek, abereei zein parkera doan jendeari enbarazu egin ez diezaioten.

1 Igoera

Argazki: Bruno Itxaso Caldevilla



Ibilbideak harrizko bidetik jarraitzen du; ez dugu orientazio zein identifikazio arazorik izango. Altueraz igo eta ibilbidearen erdia burutu



ondoren, gure eskuinetara Lekanda mendiaren Hego-ekialdeko hegala ikusiko dugu eta ezkerretara, Durangaldeko mendiak atzealdean dituela, Arratia haranaren zati bat ikus dezakegu.

2 Arrabako landa

Argazki: Juan José Aguirre



Arrabako landetan hainbat txabola ikus daitezke, hain garrantzitsua izan den artzaintza tradizioaren isla direlarik. Gaur

egun, oraindik ingurune honetan ardi latxaren transhumantzia bizirik dago. Neolitiko garaitik gaurdaino mantendu den abeltzantza tradizionala dugu, nahiz eta egun indarra galtzen ari den. Udaberrian (apirilaren bukaeran eta maiatzaren hasieran) artzainak ardiekin mendiko larreetara transhumantzia igotzen dira; bertan udazkenerarte egongo dira, orduan eguraldi kaskarra eta elurra hasten baitira.

3 Orientazio mahaia



Arrabako landetako sarreratik ezkerreko bide-zidorra jarraituz, Lanbreabeko troka gainaldeko harkaitz lerroan, orientazio mahaia aurkitzen dugu; bertatik, hainbat mendi tontor ikusi eta identifikatu daitezke.

4 Tuberkulosiaren kontrako erietxea

Argazki: Abel Itiando Elorza



Arrabako landetako sarreratik eskuinetara hartu eta belarretan ondo ikusten den bidetik jarraitzen badugu, Ganguren mendi taldearen aterpetik hurbil, antzina baratz moduan erabili eta gaur egun abereak gordetzeko erabiltzen den sastrakazko hesi baten ondoan, antzinako tuberkulosiaren kontrako erietxearen (XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran irekita egon zen) hondarrak (gutxi batzuk) aurkituko ditugu.

5 Hobia (uraren lurrazpirako sarrera)



Aterpetik eta bide zidorra jarraituz, errekastora hurbilduko

gara. Bertatik harkaitzeko hormarantz abiatuz, errekastoa lur azpian desagertzen dela ikusiko dugu. Itxinako mendigunea lur azpitik zeharkatu ondoren, errekastoa Aldabideko iturburuan (Orozko) azaleratzen da.


6 Kargaleku





Aterpetik, bide-zidorra hartuz (zeina eskuinetara eta harkaitzeko hormara zuzenean bideratzen den) kargalekura iritsiko gara:


kareharrizko harkaitzen artean dagoen arrakal hau, Itxinako mendigunerako berezko sarrera da. Toki hau elurzuloetan gordetako elurraren kargalekua (hortik bere izena) zen, zeina mandoen gainean garraiatzen zen. Itxinan ekoiztutako egur ikatza garraiatzeko kargaleku bezala ere erabiltzen zen; erabilera hau ere mendigune honetan arrunta eta ugaria zen.





 Ibilbidea


 Aparkalekua

 Aterpea

 Iturria

 Atsedenlekua

 Uraren lurrazpirako sarrera

 Tuberkulosiaren kontrako erietxea

heltzeko bidea

Areatza herriko eliza aurrean eta frontoiaren ondotik igarotzen den zementuzko bidea jarraituz, bederatzi kilometro egin ondoren (kotzez joan daiteke) Pagomakurreko ostatura helduko gara, gutxi gora-behera 900m-tara gaude, ibilbidea hemen hasten da.

ibilbidearen hasiera eta amaiera

Pagomakurreko ostatura.

distantzia 3 Km.

zailtasuna Baxua.

interesa Natura, paisaia eta kultura.

aholkuak

- Landaredia eta fauna babesten lagundu.
- Interesgarria da gida-liburu bat eramatea, bitxikeria ugari argitzen ditu.
- Mendirako oinetako egokiak erabili.
- Zakarrontziak, paperontziak edo zure motxila erabili zaborrak botatzeko edo gordetzeko. Ez bota zaborrik.



Parketxea
Gorbeia Parke Naturaleko
Interpretazio Zentroa
Gudarien Plaza, 1 - 48143 Areatza

TELÉFONO

94 673 92 79



Bizkaiko Foru
Aldundia
Nekazaritza Saria
Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Agricultura



Ibilbideak

Arraba-Kargaleku



Bizkaiko Foru
Aldundia
Nekazaritza Saria

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Agricultura